

HEZKUNTZA PROIEKTUA

1994ko martxoan onartua


Herri ekimenetik sortutako ikastola gara, euskara eta euskal kulturarekin konprometitua eta aldi berean beste kulturetara irekiak. Etengabeko hobekuntzaren bidez eta partaide guztien elkarlanean oinarrituz, ikasle guztiak kontuan izanez, pertsona bezala bere osotasunean, prestakuntzarik onena eskaini nahirik.



Q
Euskadi
2 0 0 5

jakintza **ikastola**

GURE IDENTIDADE OHARRAK



Hezkuntza - Prozesu integrala

Prozesu integrala

1.1. Gure Ikastolak, hezkuntza, prozesu integrala dela pentsatzen du. Hori dela eta dauden arlo desberdinak kontuan hartzen ditu, hezkuntza bere osotasunean kontenplatuz.

1.2. Ikastola, ikasle bakoitzak dituen adinen mugak onartuz, norbere buruaren irudi baikorra izan dezan ahalegintzen da.

1.3. Ikasleak erantzule eta arduratsuak izan daitezen saiatzen da ikastola.

1.4. Diskriminazioak sortarazten dituzten lidergo edo jokabideak ez dute lekurik ikastolan.

1.5. Elkarbizitzarako, beharrezkoa da harreman arauak zaintzea, norberaren ideiak defendatuz, jarrera tolerantzia bultzatzen dugu, garbi edukiaz besteekiko errespetua norberaren nahien gainetik dagoela.

“Ikasleak erantzule eta arduratsuak izan daitezen saiatzen da ikastola.”

1.6. Pertsonen arteko elkartasunarekin batera, gure herriak duen izaeratik abiatuta beste nazioekiko elkartasuna eta errespetua bultzatzen duen eskola da.

1.7. Ikasleak beharrezkoa duen informazio eta orientazioa eskaintzen dio ikastolak, irizpideak eduki ditzan posibilitate desberdinen aurrean aukera egokienak egiteko.

1.8. Ikastolak ahaleginak egiten ditu hezkuntzaren barnean irudimen, sentsibilitate eta sormena lantzeko.

1.9. Ingurua zaintzea eta errespetatzea guztion erantzukizuna da.

Ingurua zaintzea eta errespetatzea guztion erantzukizuna da.





“Ikastolak
globaltasuna
bultzatzen du, diziplina
desberdinen arteko
lotura bilatuz.”



Identitate oharrak metodologia

2.1. Gure Ikastola, pertsona bakoitzaren egoeratik abiatzen da bere garapena eta heldutasuna lortzeko.

2.2. Ikastola, ikerketa gune da, bertan metodologia desberdinetan oinarritutako pentsamendu zientifikoa lantzen da.

2.3. Irakaslearen zeregina, ikasleen jakinmina piztea eta gai guztietako zaletasuna bultzatzea da, horretarako behar diren interes zentroak landuz.

2.4. Ikastolak globaltasuna bultzatzen du, diziplina desberdinen arteko lotura bilatuz.

2.5. Ikasleak ikasten duena, bere bizitzarako baliagarria izan behar du, eta

ikaste hori, esanguratsuak diren prozesu eta ikasketen bidez eraikitzen dugu.

2.6. Hezkuntza prozesua, bere osotasunean ebaluatzen da, ikasle bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontutan izanik.

2.7. Ikastola, inguruan txertatua dago, eta bere ahalegina gizarteari irekitako errealitate bezala agertzea da.

2.8. Ikaslea bere osotasunean hartuaz, Ikastolak bere aisialdia eta eskolaz kanpoko harremanak garatzeko behar diren ekintza estra - eskolarrak bultzatzen ditu.

Identidade oharrak

herri onurako izendapena

3.- ESKOLA EUSKALDUNA

3.1. Euskara da gure hizkuntza eta baita gure kulturaren ardatza ere; beraz, ikasketa hizkuntza izateaz gain harremanetarako hizkuntza da.

3.2. Gure Ikastolak eleaniztasunaren alde apustu egiten du, non, euskara den hizkuntza nagusia.

3.3. Ikastolaren egitekoa euskal kultura eta euskalduntze prozesua bultzatzea da, inguruko elkarteekin lan egiteko prest agertzen delarik.

4.- ANIZTASUN IDEOLOGIKOA

4.1. Jakintza Ikastola ikastetxe anizkorra da, beraz, gizarte demokratiko bati dagozkion baloreak bultzatzen ditu. (partehartzea, elkartasuna, errespetua, elkarrizketa giroa,...).

4.2. Hezkuntza erakunde bezala, Ikastolako guraso, ikasle eta irakasleen aukera politiko, sozial eta erlijioso guztiak errespetatzen ditu.

4.3. Haurraren garapen prozesuari dagokionez, jarrera dogmazalez eginiko doktrinamenduek edo intrantsigentzian oinarritutako sektarismoek ez dute lekurik.

4.4. Era berean, informazio objektiboetatik abiatuz eta errealitatea aztertuz, iritzi propioak garatzeko gaitasuna lantzen dugu.

5.- GESTIO EREDUA

5.1. Ikastola honek gestio demokratiko, partehartzaile eta gardena du. Era honetan, eskola komunitateko estamentu guztiek

partehartze errealia eta efektiboa dute.

5.2. Arazoak bideratzerakoan, elkarrizketaren bidez bultzatzen du, jarrera amankomunak bilatuz, adostasunera heldu arte.

5.3. Ikastola zerbitzu osagarri egokiaz hornitua dago, eta sortzen diren beharrei erantzuten die.

6.- HEZKIDETZA

6.1. Tradizioz, balore batzuk gizonezkoenak eta beste batzuk emakumezkoenak direla esan bada ere, ikastola honek ez du honelako bereizketarik egiten, eta ikasle bakoitzaren baloreak eta norberaren ezberdintasunak onartzen ditu, generoaren estereotipoak gaindituz.

7.- KONFESIONALITASUNA

7.1. Jakintza Ikastola, ikastetxe akonfesional bezala definitzen da, beraz, erlijioarekin erlazioatutako gaiak ikuspegi historiko kultural batetik aztertzen dira, eta ez doktrinamendu bezala.

7.2. Ikastetxeak onartzen du fenomeno erlijiosoak duen eragin soziala, eta beronen heziketarako eragina, ondorioz mota honetako heziketa nahi dutenek inguru sozialean aurki dezaten laguntzen du.

7.3. Ikastetxe honek, bertako kideen artean egon litezkeen erlijio ezberdinak errespetatzen ditu, inolaz ere ez delarik izango diskriminazio iturri.

GURE HELBURU INSTITUZIONALAK



Helburu instituzionalak

pedagogi arloa

- 2.1. a) Ikasleen artean dauden erritmo desberdinetara curriculumak egokitu. b) Tutoretzako eginbeharrak indartzea ikasle guztiekin. c) Ikasle bakoitzaren errendimendua baloratzerakoan, lanerako izan duen grina kontuan izan.
- 2.2. a) Pentsamendu zientifikoa bultzatu edo sustatu. b) Behar diren tresnak erabiliz, lan intelektualetarako gaitasuna lortu. c) Garapen zientifikoa eta teknolo-gikoa ezagutu eta baloratu.
- 2.3. a) Gai guztietarako jakin-mina piztu. b) Ikasleen helburu propioak garatzea ahalbideratu.
- 2.4. a) Gai curricularrari buruz konpromisoa amankomunak hartzea arlo desberdinen artean. b) Gai bakoitza ikuspegi global batetik lantzea. c) Planteamendu amankomunaren barruan ziurtatu material didaktikoen aukeraketa eta erabilpena.
- 2.5. a) Aprestuzai prozesua progresiboa eta koherentea izatea. b) Ikasleen interesak ezagutu eta aldi berean abiapuntutzat hartu. c) Aprestuzai esanguratsu bat aurrera eramateko prozeduren baliagarritasuna azpimarratu.
- 2.6. a) Garapen intelektual eta afektiboaren jarraipen iraunkor eta zuzena egin. b) Autoebaluaketa zuzenerako ohitura sortu.
- 2.7. a) Ingurua ulertzeko ezagutzak eskuratu eta gure kulturaren edertasun eta kalitatea baloratu.
- 2.8. a) Norbere gorputzaren oinarriko funtzionamendua ezagutu, norbanako eta taldearen osasunerako datozen ondorioetatik ohartu, honela bizimodu sano bat egiteak, ariketa fisikoa, higiena, elikadura orekatuak dakartzan abantailak baloratu. b) Beste pertsona batzuekin erlazionatu eta talde ariketatan parte hartu harrera solidario eta tolerantzarekin. c) Ikasleak ekintza estraskolarretan parte har dezaten animatu. d) Joko eta jolas kooperatibo eta mistoak bultzatu.
- 2.9. a) Ingurua analizatzeko gai izan eta bere hobekuntzarekin konprometitu. b) Ikasleak inguruarekiko sentsibilitate eta errespetuan hezi. c) Kultur eta natura ondarearekiko errespetua, begirunea eta gozamina bultzatu.
- 2.10. a) Lanerako talde mistoen osaketa eragin. b) Ikasleek espiritu kritikoa izan dezaten bultzatu. c) Taldeko ekintzak planifikatzen eta aurrera eramaten ahalegindu.
- 2.11. a) Ikasleak informazioa lortu eta hautatu eskura dauden iturrietatik baliatuz. b) Informazioa era autonomo eta kritikoa tratatu, modu ulergarrian transmitituz besteei. Ikasleek jarrera kritikoa har dezaten jarduerak sistematikoki landu.
- 2.12. a) Tradizio kulturalari buruz oinarriko kontzeptuak eraikitzen lagundu.
- 2.13. a) Interdisziplinarietatea eta prestuzaiaren funtzionalitatean oinarritutako estrategiei lehentasuna eman. b) Ikasleen garapen integrala bermatu, horretarako uztartuz, alde batetik, aspektu kurrikularrak eta bestetik balore

Helburu instituzionalak

pedagogi arloa

pertsonalen garapena.

2.14. a) Derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan gure ikasleek bi hizkuntza ofizialak ondo ezagutzea, eta ingeleraz komunikazio maila egoki bat lortu. Laugarren hizkuntza baten ezagutza izateko bitartekoak jarri.

2.15. a) Norbere buruaz irudi orekatu eta doitu (ajustatua) osatzeko bide eman.

b) Ahaleginak eta zailtasunak baloratuz prestakuntza autonomoa garatu.

2.16. a) Ikasleak erantzule eta arduratsuak izan daitezen bide egokiak garatu.

2.17. a) Gutxigotasuna edo nagusitasun kutsua eduki dezaketen mezurik ez zabaldu.

b) Eguneroko elkarbizitzan justizia eta elkartasunaren zentzua bultzatu.

c) Ikasle artean egon daitezkeen desberdintasunen aurrean (gizarte, intelektual,...) sentsibilitatez jokatu.

2.18. a) Pertsona guztien ideia, iritzi, sinismen eta bizimodua onartu eta baloratu.

b) Ikasleen arteko komunikazioa bultzatu gelako kontseilu eta tutoretzaren bidez. c) Geletatik norgehiagoka eta

konpetibitatearekin batera autoritarismoa eta zigorra saihestu.

d) Ikasleen arteko lankidetzak bultzatu inguru sozialean egon daitezkeen arazoaren aurrean.

2.19. a) Hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide bezala ezagutu eta ulertu.

b) Errespetuzko jarrera garatu.

2.20. a) Garapen estetikoa, bere aplikazioak eta ingurune sozialean duen intzidentzia ezagutu eta baloratu.

2.21. a) Gizartearen funtzionamendua finkatzen duten mekanismo eta balioak aztertu.

b) Epai eta irizpide pertsonalak landu.

2.22. a) Hartzen diren erantzukizunak sexu estereotiporik gabe izan daitezen propiziatu.

b) Material didaktikoetan sexu estereotiporik ez erabiltzea bultzatu.

c) Gure ikasleak sentimenduak naturaltasunez espresa ditzaten faboratu.

d) Ikasleen zereginetan, sexua dela medio ezberdintasunak sortuko ez dituzten ekintzak bultzatu.



Helburu instituzionalak instituzional arloa

3.1. a) Gurasoekin harreman estua mantendu informazioa trukatzeko. b) Irakasleriaren artean talde lana bultzatu eta beraien arteko hausnarketa amankomunaren bidez jardueraren etengabeko azterketa egin.

3.2. a) Ingurune fisikoaren funtzionamendua determinatzen duten oinarri mekanismoak aztertu.

b) Giza jarduerak inguru fisikoarengan dituen eraginak baloratu eta aktiboki lagundu guzti hori defenditzen, kontserbatzen eta hobetzen.

3.3. a) Kultur eta hezkuntzari buruzko ekintzetan parte hartu.

3.4. a) Ikastolako ikasleria euskaraz bitztea lortu.

b) Euskararen erabilpena bultzatu ikastolako estamentu guztien harremanetan.

3.5. a) Ikastolako partaide guztientzat erlazio marko bat asumitu non, inhibizio eta aurreiritzirik gabe, arraza, sexua, gizarte klase, sineste eta beste ezaugarri indibidual eta

“Gurasoek, irakasleek, ikasleek eta pertsona ez dozentek ikastolaren gestioan parte hartzea lortu eta euren artean komunikazioa ziurtatzeko bideak jarri.”

sozialengatik edozein bereizkeria-mota baztertuz.

3.6. a) Gurasoek, irakasleek, ikasleek eta pertsona ez dozentek ikastolaren gestioan parte hartzea lortu eta euren artean komunikazioa ziurtatzeko bideak jarri.

b) Hezkuntza proiektua gauzatzeko eta zaintzeko gurasoek duten zeregina bideratu.

3.7. a) Tradizio kulturalak bizirik mantentzeko egoki ikusten diren ekintzak bultzatu.

3.8. a) Pertsona orok dituen ideia, iritzi, aukera erlijioso onartu eta baloratu.

3.9. a) Gure heziketa jarduera inguru soziokulturalean integratu.

3.10. a) Kultur ondarea ezagutu, preziatu eta gozatu eta berori

Tradizio kulturalak bizirik mantentzeko egoki ikusten diren ekintzak bultzatu.



Helburu instituzionalak instituzional arloa

kontserbatzen eta hobetzen aktiboki lagundu, hizkuntza eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide bezala ulertuz, eta eskubide honenganako interes eta errespetozko jarrera bultzatuz.

b) Euskararen normalizazioa eta zabalkuntzarako diren ekintzetan parte hartu.

3.11. a) Aukera erlijioso desberdinak inguru sozialean luketen garapena errespetatu.



Euskararen normalizazioa eta zabalkuntzarako diren ekintzetan parte hartu.

Helburu instituzionalak administrazio arloa

4.1. a) Ikastolako estamentu guztien artean, komunikazio eroso bat lortu.

b) Ikastolari dagokionez, gestio arin eta gardena ziurtatu.

Helburu instituzionalak zerbitzu arloa

5.1. a) Ikastolaren funtzionamendu orokorrean sortzen diren beharrei erantzuteko zerbitzu egokiak eduki (jangela, garraioa, haur-zainketa, ...etab.).



Ikastolari dagokionez, gestio arin eta gardena ziurtatu.



jakintzaikastola

Gernikako Arbola Pasealekua
Ordizia, Gipuzkoa, 20240
Tel.: 943 16 05 40 - Faxe: 943 16 07 90
jakintza.net - ikastola@jakintza.net



jakintzaikastola